

2018-2019 MENDI-DENBORALDIAREN AMAIERAKO IRTEERA



MAIATZAK 11, LARUNBATA

8:00 Irteera, Iztietatik.

Ibilbidea: Olloko aterpetik, bailararen itzulia, Arteta ibaiaren iturburua bisitatu eta berriro aterpera itzuli. Hamaiketako eta bazkaria mendian egingo dugu.

17:00 Aterpetxera iritsi eta kokatu.

Afaldu baino lehen, jokoak egingo ditugu.

20:30 Afaria eta gaubela.

23:30 Denok ohera txintxo-txintxo eta garbi-garbi.

MAIATZAK 12, IGANDEA

8:30 Diana eta gosaria.

Goizean zehar jokoak egingo ditugu.

14:00 Bazkaria eta ondoren denbora libre.

16:00 Gauzak bildu eta guztiak txukundu ondoren, 17:00etan abiatuko gara.

19:00 Iztietara iritsi

GOMENDIOAK

- Larunbatean mendian jateko hamaiketako eta bazkaria eraman behar dira. Motxila batean jarri asteburuko gainerako gauzetatik bereiztuta, ibilaldian hori bakarrik eramateko gainean.

- Lo-zakua eraman behar da, baita garbiketako gauzak eta norberaren arropa ere.

- Mendiko botak behar beharrezkoak dira. Horrez gain, aldatzeko beste zapatilla batzuk eta arropa ere eraman behar dira.

- Ez dute dirurik eraman behar.

- Ezin dira eraman linternak, sakelako telefonoak eta joko-konsolak.

- Aterpetxeko jatorduetan ezin da menuz kanpoko edo norberak eramandako ezer jan (patata frijituak, freskagarriak...)

- Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko neska-mutilen batek zerbait galduko balu, nahiz eta gerta ez dadin ahaleginduko garen.

- Beharrezkotasuneko telefonoak: